Aipatutako emanaldiez gain, beste emanaldi bat, doakoa, ere eskainiko da, Portugaleteko Udalaren Euskara Zerbitzuak finantzatuta, ekainaren 23an, 19.00etatik aurrera. Doako emanaldi horretarako gonbidapenak udaletxeko Euskara Zerbitzuan eskuratu ahal izango dira (Gizarte Etxea, 2. solairua) ekainaren 19tik aurrera, gehienez launa gonbidapen emango dira.

Iker Galartza aktoreak bertaratzeko gonbidapena luzatu du: «inork ez luke Gure Zirkua galdu beharko, euskal kulturaren parte izan nahi duten guztientzat delako. Ekainaren 23tik aurrera, beraz, aukera bikaina izango duzue zirkuaren kultura ezagutzeko».

Ildo berean, Koldo Nuñez Euskara zinegotziaren esanetan, «Portugaleteko Udaleko Euskara Sailak funtsezkotzat jotzen du euskarari eta euskal kulturari lotutako kultur-produktuak gurasoei ezagutaraztea eta eskuragarri jartzea. Hori dela eta, euskara hutsezko zirkua ekarri nahi izan dugu». Asti-Leku ikastolako zuzendaria den Iñaki Vázquez ere pozik agertu da ekimenarekin. «Asti-Lekun tinko sinesten dugu euskararen erabilera

sustatu behar dela eta horretan laguntzen duen edozein ekimen babestu behar dela», gaineratu du.

LEA ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

- 2023-05-26

Zirkuaren atek zabalduz

Ibilbide artistikoaren aldeko apustu finkoa egin eta erronka berriei helduz, Lur Aranburu zirkuaren munduan murgildu da, Euskal Herriko txokoak bisitatzen dituen Gure Zirkuagaz.



Naia Arantzamendi
Ondarroa

2023/05/26

Fantasiari atek zabaltzea helburu duen Gure Zirkuako lantaldearen parte da Lur Aranburu ondarrutar artista. Duela aste pare bat hasi zuen bere ibilbidea profesionala zirkuaren munduan, Euskal Herriko txokoak bisitatzen dituen euskal zirkuagaz. Duela hiru aste sartu zen Gure Zirkuako lan taldearen parte izatera.

Lan taldean hamar artistak lan egiten dute, eta beste bost lagunek osatzen dute talde teknikoa. Hala eta guztiz ere, Aranburuk aitortu duenez, jende gehiago biltzen da familia handi bat bezala deskribatzen duen taldean: «Lan taldeko kide askok seme-alabak dituzte, hortaz, jende gehiago biltzen gara. Asteburuetan **talde polita** batzen gara». Lehen egunean, muntaian laguntzera

hurbildu zen, zirkua zelan muntatzen den ikusi eta ikastera. Harremanak egiten hasi zen.

“Familia handi bat dira, oso ondo hartu naute, eta gustura lan egiten dugu”

Ondoren, aste barruan entseguak egiten hasi zen , eta asteburu horretan izan zen bere lehenengo emanaldia, ikusleekin izango zuen lehenengo agerraldia: Andoainen izan zen. **Oso berezia** izan zela gogoratzen du: “Andoainekoa oso berezia izan zen niretzat, urte asko daramatzat jendaurrean aktuazioak egiten, baina zirku batean lehenengo aldia zen niretzat. Ikusleen aldetik harrera oso ona izan nuen, txalo zaparrada entzun ahal izan nuen, eta lantaldeko kideek ere pila bat animatu ninduten. Borobila izan zen” .

Zirkuaren munduan egindako lehenengo agerraldia izan arren, jendaurrean eskarmentua dauka Aranburuk, hain zuzen ere, gimnastika erritmikoan ibili izan baita **7 urte zituenetik**, eta ibilbide osatua du. Lehenengo pausoak Naia Iparragirregaz eman zituen, hain zuzen ere, oihalak eta trapezioa egiten hasi baitzen, Ondarroan. Egun zehatz batean, parkean ari zen txiribueltak egiten, eta guraso bat hurbildu zitzaion, gimnastika erritmikoan izena ematera animatuz: hor hasi zen kirol ibilbidea.



Mutrikuko taldean egin zituen lehen hastapenak, eta urtebete geroago Ipuruara joan zen. Bertan osatu du bere ibilbidea, eta hamaika izan dira lehiatutako txapelketak eta pilotutako dominak: Espainiako Txapelketa, Gipuzkoako Txapelketa, Euskadiko Txapelketan... “Urte mordoa egin dut goi mailako **kirol zurrun** batean”. Hortaz, atsedeen hartzeko beharra ikusi zuen Batxilergoa amaitu eta bere etorkizunera begira jarri zenean. “Ez nuen uste

gorputzagaz zerikusia zuen ezer egingo nuenik une horretan, psikologia ikastea ere pentsatu nuen”.

Ikasketa normatiboa albo batera utzi eta ibilbide artistikoari ekin zion

Baina ibilbide artistikoan murgilduta eta **gustukoa duena** argi edukita, ikasketa normatiboetatik joateko ideiak ez zuen konbentzitzen Aranburu. Hortaz, familiagaz berba egin eta “babes osoa” jaso ostean, zirkuaren munduan ikasketak egitea erabaki zuen, eta “aukera ona izan zen”. Zirkuaren munduari dagokionez, eskaintza anitza dagoen leku bat aukeratu zuen: Bartzelona (Herrialde Katalanak).

Ondarroatik Bartzelonarako jauzia aldaketa handia izan zela aitortu badu ere, artista bezala hamaika ate ireki dizkio ondarrutarrari: “Bartzelonara joatea aldaketa handia izan zen, herri txiki batetik hiri batera joateak ekarri dezakeen aldaketa. Baina zirku munduan, artista bezala **pila bat bide** ireki zitzaizkidan, jendea ezagutzeko, entrenatzeko eta baita lan egiteko ere”. Hortaz, esperientzia esaldi bakar batean laburbildu du: “Pila bat ikasi dut” .

“Markina-Xemeingoa birako geltokirik bereziena izango da niretzat”

Gure Zirkuak Ondarroan bira egin zuen batean, herritar artista baten berri eman zioten lantaldeari, eta curriculuma bidaltzera animatu zuten. Uda gainean izanik, aukera ona iruditu zitzaion Aranbururi, eta horrela hasi zen zirkuaren ibilbide profesionala eta Euskal Herrira itzulera ere. “Lan egin nahi nuen, **artista bezala** nire ibilbidea garatzen joateko asmoz eta aukera polita iruditu zitzaidan”.

Aukeraketa eginda, zirkuagaz izandako lehenengo kontaktua espero baino hobeagoa izan dela aitortu du. “Gauzak ondo joango zirenaren jakitun nintzen, hasieratik nekien jende oso jatorra zegoela, baina espero baino hobeagoa izan da. Bertara heldu eta giro oso ona zegoen, ordu asko igarotzen ditugu elkarrekin, eta familia handi bat dira, oso ondo hartu ninduten, eta gustura lan egiten dugu”.

Etxeko emanaldia. Orain, Lazkaon daude biran, baina zirkuaren hurrengo geltokia Markina-Xemein izango da. Eskualdeko herria izanik, ezagun asko izango ditu inguruan ondarrutarrak: “Birako geltokirik bereziena izango da niretzat, hurbileko jende asko joango da, **desiratzen nago**, badakit asko hunkitu egingo naizela, baina gogoia daukat”.

Ibilbide artistikoak eskaintzen duen aukera aniztasuna aprobetxatu eta diziiplina artistiko ezberdinetan probatzeko gogoaz berba egin du ondarrutarrak. "Gaur-gaurkoz daukadanaz gozatuko dut, baina aurrera begira proiektu pertsonalak garatzea ere ikusten dut, baita **diziiplina artistiko** ezberdinak probatzen joatea. Ibilbide artistikoa gustukoa dut, eta hortik jarraituko dut".

Portugalete acoge el primer circo en euskera para reivindicar la cultura vasca

La villa ofrecerá siete funciones a trece euros y una sesión gratuita para acudir a la carpa que se ubicará frente al edificio de Educación Primaria de Asti-Leku

Diana Martínez
Portugalete

Lunes, 29 de mayo 2023

Malabares, trapeceistas, magia, luces y música. Estos son los principales ingredientes de 'Gure Zirkua', el primer circo íntegramente en euskera con el firme objetivo de reivindicar la cultura vasca. El espectáculo, dirigido a las familias y al público en general de todas las edades, llegará a [Portugalete](#) el próximo mes de junio y julio, en colaboración con el Ayuntamiento y la ikastola Asti-Leku.

«La transmisión lingüística es, en definitiva, la base de todo objetivo estratégico. La evolución de la lengua vasca en los últimos años nos obliga a garantizar el proceso de empoderamiento de las generaciones jóvenes y a seguir garantizándolo en el futuro», señaló el concejal de Juventud, Txema Ezkerra.

PUBLICIDAD

Y una medida es este circo, cuya carpa se ubicará frente al edificio de Educación Primaria de Asti-Leku. Las funciones se llevarán a cabo los días

25 y 30 de junio, así como 1 de julio, con pases a las 18.00 y 20.30 horas, mientras que el 29 de junio habrá solo un espectáculo a las 19.00.

Las entradas (a un precio de trece euros) se podrán adquirir en la web www.gurezirkua.es y en las taquillas de la carpa. Cabe destacar que también se ofrecerá una función gratuita, financiada por el área municipal de Euskera, el 23 de junio a las 19.00 horas. Las invitaciones se repartirán hasta un máximo de cuatro por persona a partir del 19 de junio, de 9.00 a 14.00 y de 16.00 a 18.00 horas, en el servicio de Euskera del Consistorio jarrillero (la segunda planta del edificio cívico-social).

Gure Zirkuaz gozatzeko azken aukera izango da asteburuan Lazkaon

Azken hiru saioak eskainiko ditu ikuskizunak eta oraindik ere sarrerak eskuratzeko aukera dago

JOSU ZABALA

Lazkao.

Miércoles, 31 de mayo 2023

Maiatzaren 19an ilusioa eta ikuskizuna Lazkaoko Iturgaitzaga-Abankoko parkinera heldu ziren modu berezi batean. Duela bi urte Beasainen egon zen 'Gure Zirkua' ikuskizuna bisitan, eta hiru astez, Lazkaon ezarri du karpa koloretsua.

Zirkuko bultzatzaile nagusienetakoa den Iker Galartzarekin hitz egiteko aukera izan dugu asteburuan eskainiko dituzten azken saioen aurretik, eta gustora azaldu da. «Horrelako herri batean aritzea izugarria izan da guretzat. Goierrri aldean izandako esperientzia guztien moduan, jendea oso gertukoa iruditzen zaigu hemen, eta ikuskizunaren parte sentitu ditugu». Galartzak adierazi du denetik izan dela Lazkaoko emanaldietan, eguraldi ona, euria... baina kasu guztietan, ikusleen aurpegiak pozez beteta ikusi direla emanaldien amaieran, «eta horrek, asko betetzen gaitu zirkua aurrera eramateko lan egiten dugun guztioi» aitortu du.

PUBLICIDAD

Gerturatu diren herritar zein bisitariekin ere taldeko kideak oso pozik sentitzen ari direla gogoratu du. «Gure emanaldiekin hasi ginenean, askok

umeentzako saioak eskaintzen genituela uste zuten, baina orain ulertu dute publiko 'kozkortuago' batentzat bideratuak dauden sesioak direla. Gerturatu zen familia batek komentatu zidan, haien semeekin ikusi zutela saioa, eta berriro ere errepikatu egingo zutela, baina bigarren bisitan, amonarekin, eta horrela egin zuten». Gerturatu zen jendeak ere eskertu nahi egin izan zien egiten duten esfortzua. «Bertan egon ziren hainbat ikuslek aitortu ziguten aurretik Beasaingo saioan egonak zirela, eta ilusioz hartu zutela zirkuaren xarma mantentzea, baina berrikuntza nabarmenak ekartzea. Horrek, gure lana behar den moduan gauzatzen dugula argi uzten digu, ez baitugu ahaztu nahi nondik gatozen», azaldu du Galartzak.

Iker Galartza Arduraduna«Goierriin, jendea oso gertukoa da, eta ikuskizunaren parte sentitu ditugu ikusleak»

Hala, asteburu honetan Gure Zirkuaz gozatzeko azken aukera izango dute interesdunek. Sarrerak, gaur bertan zirkuko takilan eskuratu ahal izango dira (18.00etan irekiko da) eta biharko egunez eta larunbatean ere bertan salgai egongo dira. Modu telematikoan ere eskuragai daude, gure zirkuko web orrialdearen bidez.

BIZKAIA IRRATIA – 2023-06-06

Gure Zirkuaren denporaldi barria Bizkaian



4:53 Lur Aranburu ondarrutarra Gure Zirkuaren kontorsionista barria da | Goizeko Izarretan

Gure Zirkua / **BIZKAIA IRRATIA**

BIZKAIA IRRATIA[2023/06/6 • 13:37](#)

Gure Zirkuak denporaldi barriari ekin eta Bizkaian egingo dauz hurrengo asteak. **Markina-Xemeinen** barikuan abiatuko dau taldeak bi asteburuko egonaldia.

Handik **Portugaletera** joango da. Zirkua Ezkerraldean izango da lehenengoz bagilaren 23 tik garagarilaren 1era. Gero, Durangaldera itzuliko da zirku ibiltaria eta **Elorrion** altxako dau karpa euskal troupeak.

10 artistek osotzen dabe denporaldi barriko ikuskizuna eta haren artean kide barria dago; **Lur Aranburu ondarrutarra**. 10 urte baino gehiago gimnasia erritimikoa egiten egon ondoren zirkuaren munduan barneratzea erabagi eban. Aranburuk disziplina batzuk

ikasi ebazan Bartzelonan eta proiektu hau ikusi ebanean bertan parte hartzera animauzan. Gaur, Goizeko Izarretan izan dogu gugaz.

Aranburu **kontorsionismoan** espezializauta dago baina akrobazia edo tranpolin bertikalak be egiten dauz, besteak beste. Ikuskizun osoan ariketa horreek guztiak eta gehiago ikusi daitezke. 2023ko lehen **emonaldietarako sarrerak** salgai dagoz jada, **www.gurezirkua.eus web-gunean**.

<https://bizkaiairratia.eus/podcast/gure-zirkuaren-denporaldi-barria-bizkaian/>

GARA – 2023-06-12

Gure Zirkuak Bizkaian egingo du egonaldia ekainean eta uztailean

Data

23.06.09 - 23.07.16

Lekua

Bizkaia – Markina



Gure Zirkuko kideak zain izango dituzte ikusleek Bizkaian. (GURE ZIRKUA)

Gure Zirkua Bizkaian izango da ekainean eta uztailean. Markina-Xemeinen ostiral honetan abiatuko du taldeak bi asteburuko egonaldia. Handik Portugaletera joanda, Gure Zirkua Ezkerraldean izango da lehenbiziko aldiz. Eta uztailean Durangaldera itzuli. Elorrion altxako du karpa ondoren zirku ibiltariak.

«Orain hilabete abiatu zuen Gure Zirkuak seigarren bira, modu ezin hobean; lehen aldiz Zuberoara iritsi, eta Maule-Lextarren asteburu bakar batean milatik gora ikusle bilduta – gogoratu dute–. Gipuzkoan, Andoainen eta Lazkaon, karpa mukuru bete ondoren, Bizkaira iritsiko da euskal zirku ibiltaria ekainean eta uztailean, hiru geldialdi eginez».

Honako hauek izango dira Gure Zirkuak aurten Bizkaian eskainiko dituen emanaldiak:

MARKINA-XEMEIN:

- Ekainaren 9an, ostiralean, 19.00etan
- Ekainaren 10ean, larunbatean, 18.00etan eta 20.30ean
- Ekainaren 11n, igandean, 18.00etan
- Ekainaren 16an, ostiralean, 19.00etan
- Ekainaren 17an, larunbatean, 18.00etan eta 20.30ean

- PORTUGALETE:

- Ekainaren 23an, ostiralean, 19.00etan
- Ekainaren 25ean, igandean, 18.00etan eta 20.30ean.
- Ekainaren 29an, ostegunean, 19.00etan
- Ekainaren 30ean, ostiralean, 18.00etan eta 20.30ean
- Uztailaren 1ean, larunbatean, 18.00etan eta 20.30ean

- ELORRIO:

- Uztailaren 7an, ostiralean, 19.00etan
- Uztailaren 8an, larunbatean, 18.00etan eta 20.30ean
- Uztailaren 9an, igandean, 11.00tan
- Uztailaren 13an, ostegunean, 19.00etan
- Uztailaren 14an, ostiralean, 19.00etan
- Uztailaren 15ean, larunbatean, 18.00etan eta 20.30ean
- Uztailaren 16an, igandean, 18.00etan

Bizkaiko emanaldietarako sarrerak salgai jarriko dira [webgunean](#).

Gure Zirkua Bizkaian izango da ekainean eta uztailean

Gure Zirkuk aurrera darrai seigarren birarekin, eta, lehen aldiz Zuberoan egon eta Maule-Lextarren milatik gora ikusle bildu eta Gipuzkoako Andoainen eta Lazkaon karpa mukuru bete ondoren, Bizkaian izango da ekainean eta uztailean. Sarrerak salgai daude jada www.gurezirkua.eus webgunean.

Hasteko, euskal zirku ibiltariak jakinarazi duenez, Lea Artibain izango da taldea, eta zazpi emanaldi eskainiko ditu Markina-Xemeinen ostiraletik, ekainaren 9tik. Ondoren, Gure Zirkua Ezkerraldera iritsko da lehen aldiz, eta bi asteburuko egonaldia egingo du Portugaleten. Uztailean, berriz, Durangaldera itzuliko da zirku ibiltaria eta Elorrion altxako du karpa.

Zehazki, Gure Zirkua ekainaren 9, 10, 11, 16 eta 17an izango da Markina-Xemeinen, ekainaren 23, 24, 25, 29 eta 30ean eta uztailaren 1ean Portugaleten, eta uztailaren 7, 8, 9, 13, 14, 15 eta 16an Elorrion.

ANBOTO – 2023-07-05

Gure Zirkua uztailaren 7tik 16ra bitartean Elorrioko Ganondo parkean

Anboto 2023ko uzt. 5a



Ikuskizun guztietarako sarrerak dagoeneko eskuragai daude sarrerak.gurezirkua.eus webgunean eta takilan

Astebete pasatxoaz Euskal Herriko artistarik trebeenak Elorrioko Ganondo parkean jarri duten karpan egongo dira. Uztailaren 7ko barikutik uztailaren 16ra bitartean nortasun berezi, xelebre eta irribarretsua duten artistek hainbat saioa eskainiko dituzte Elorrion. Gainera, Elorrioko emanaldiak aurten Bizkaian egingo dituzten azkenak izango dira, Gure Zirkua-ko kideek jakitera eman dutenez.

Hauek izango dira eskainiko dituzten saioen egun eta ordutegiak: uztailaren 7an 19:00etan; uztailaren 8an 18:00etan eta 20:30ean; uztailaren 9an 11:00etan; uztailaren 13an 19:00etan; uztailaren 14an 19:00etan; uztailaren 15ean 18:00etan eta 20:30ean, eta uztailaren 16 19:00etan.

Ikuskizun guztietarako sarrerak dagoeneko eskuragai daude, bai webgunean eta baita takilan ere.

DOTB – 2023-07-06

Gure Zirkuak bederatzi ikuskizun eskeiniko ditu Elorrion

2023-07-06

Ganondo parkean egongo dira datorren uztailak 16ra arte



Lehen ikuskizuna ostegun honetan izango da

ELORRIO | Ikusmin handia pizten duen euskal zirkua iritsi da herrira. Artista paregabe bezosaturako taldeak bederatzi ikuskizun egingo ditu: ostiralean, hilak 7, 19:00etan; larunbatean, hilak 8, 18:00etan eta 20:30etan; igandean, hilak 9, 11:00etan; ostegunean, hilak 13, 19:00etan; hilaren 14an, 19:00etan; hilaren 15ean, 18:00etan eta 20:30etan; eta hilaren 16an, igandea, 19:00etan. Bizkaiko azken emanaldiak izango dira Elorriokoak.

“Gure lanbidea, edertasuna eta ausardia elkarbanatu nahi ditugu herri osoarekin, adin eta maila guztietako herritarrekin”, azaldu dute artistek. Nortasun berezia duen zirkua da. “Gure Zirkuan sinetsi ezin denaz gozatuko dugu; eta karpa barruko giroa osatuko duten orekarekin, indarrarekin, arriskuarekin, trebetasunarekin eta pozarekin harrituko gara. Harmonian batzen diren sentipen eta zirrarak guztiek sinfonia berezi eta partekatua osatuko dute; zirkua baino ez baita gai eutsi ezin diren irribarreak erauzteko, gorputz osoa astinduko duten hotzikarak sortzeko, eta azken finean, bizitza ospatzea ahalbidetzen digun zorientasuna eragiteko”.

Sarrerak eskuragarri daude [hurrengo loturan](#).

KARKARA – 2023-07-16

Gure Zirkuak astelehenetik aurrera jarriko ditu salgai Orioko emanaldietako sarrerak

Aiora Larrañaga Solaberrieta 2023ko uzt. 16a



Gure Zirkua Muntoko zelaian jarriko du karpa.

Abuztuaren 4tik 26ra, ostegun, ostiral, larunbat eta igandetan eskainiko du emanaldia Gure Zirkuak Orion.

Gure Zirkua Orion izango da abuztuan, eta hamasei emanaldi eskainiko ditu abuztuaren 4tik 26ra bitartean. Ostegun, ostiral, larunbat eta igandetan izango dira saioak 19:00etan, eta abuztuaren 13an eta 19an, igandearekin, saio bikoitza eskainiko dute bata 12:00etan eta bestea 19:00etan.

Gure Zirkuak sare sozialen bidez jakinarazi du astelehenetik aurrera [internet bidez salgai](#) jarriko dituztela abuztuan Orion egingo dituzten emanaldietarako sarrerak.

DIARIO VASCO – 2023-07-17

Gure Zirkua, bosgarren urtez, abuztuan Orion

Guztira 16 saio eskainiko dituzte eta sarrerak dagoeneko salgai daude

DV

Orio

Lunes, 17 de julio 2023 | Actualizado 21/07/2023

Bosgarren urtez jarraian, Gure Zirkuak geldialdia egingo du Orion, eta abuztu osoa pasatuko du herrian. Abuztuaren 4an, ostegunarekin, hasiko dituzte emanaldiak, eta hilaren 26ra arte, 16 saio egingo dituzte. Atzo bertan jarri ziren salgai sarrerak eta Gure Zirkuaeren webgunean eskuratu daitezke.

Lau astez, ostegunetik igandera eskainiko dute ikuskizuna, beti 19:00etan. Haur eta helduei zuzendutako proposamena da, betiko zirkuaeren espiritua jasotzen duena, baina euskal publikoarentzat egokituta eta euskaraz.

Datozen egun hauetan egingo dituzte karparen prestaketak Mendibeltz futbol-zelaiaren ondoko berdegunean, oriotarrei eta bisitariei harrera egiteko. Beraz, udako kultur programa zabalaren barne, Gure Zirkuaeren aukera Orion, aurtengoan ere ikuskizun berriarekin.

Zuberoan hasi zuen bira apirilaren amaieran Gure Zirkuak, Maule-Lextarren, eta milatik gora ikusle bildu zituen. Sohütako Eperra ikastolarekin eta Maule-Lextarreko Herriko Etxearekin elkarlanean, lehenbiziko aldiz izan da euskal zirku ibiltaria Zuberoan, Xiberoko Ikastolen 50. urteurreneko ospakizunekin bat eginez. Ondoren Andoainen eta Lazkaon izan da. Zortzi emanaldi izan ziren Andoainen eta jarraian Goierri aldera egin zuen bidaia

Gure Zirkuak. Maiatzaren 19tik ekainaren 3ra bitartean, ikuskizun ibiltariak 11 emanaldi eskaini ditu Lazkaon, Abanko parkinean kokatu zen karpan.

Ondoren, Gipuzkoatik Bizkaia aldera egin zuen bidaia Iker Galartzak gidatzen duen proiektu honek. Hasteko Lea Artibain izango zen taldea, eta zazpi emanaldi eskaini zituen Markina-Xemeinen. Ondoren, Gure Zirkua Ezkerraldera iritsiko zen lehen aldiz, eta bi asteburuko egonaldia zuen. Portugaleten. Uztailean, berriz, Durangaldera itzuliko en zirku ibiltaria eta Elorrion altxa zuen karpa.

KARKARA – 2023-07-25

Hemen da Gure Zirkua

2023ko uzt. 25A



Gaur goizean lan eta lan ari ziren egitura muntatzen. (Onintza Lete Arrieta)

Beste behin, abuztu osoa pasatuko du Gure Zirkuak Mendibeltz futbol zelai ondoko berdegunean, eta jada ari dira egitura muntatzen. Atzo, astelehenarekin, hasi zituzten lanak, eta gaur ere lan eta lan ari dira.

Gure Zirkua Orioko emankizunak datorren astean hasiko dira, abuztuaren 4an, baina dagoeneko egitura muntatzen hasiak dira zirkuko kideak. Atzo hasi ziren beharrez, eta gaur ere lan eta lan dabilta.

Guztira hamasei emanaldi eskainiko dituzte herrian, lau astez, ostegunetik igandera bitartean egunero, beti 19:00etan hasita.

[Sarrerak, berriz, eskuragarri daude Gure Zirkua webgunean.](#)



Gure Zirkukoen kamioia. (Onintza Lete Arrieta)

ETB 1 – 2023-07-28

"Zirkuak badauka antzerkiak ez daukan zerbait: gertatzen dena, orain, gaur eta horrela gertatzen dela"

Publikatuta: 2023/07/28

Gure Zirkuko kideak izan dira denboraldiko azken atalean. Iker Galartzak, Ekain Ibarenek eta Imanol Ituiñok zirkuko seigarren denboraldiaren inguruko berriak azaldu dizkigute.

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/bibazuek/bideoak/soa/9275770/zirkuak-badauka-antzerkiak-ez-daukan-zerbait-gertatzen-dena-orain-gaur-eta-horrela-gertatzen-dela/>

KARKARA – 2023-07-31

Ostiral honetan hasiko da Gure Zirkua emanaldiak ematen, Orion

Andrea Zipitria 2023ko uzt. 31a



Gure Zirkua Mendibeltz futbol zelaiaren ondoko belardian. (Onintza Lete Arrieta)

Dagoeneko amaituta daude lehenengo eguneko emanaldirako sarrerak, baina abuztuan zehar 16 saio egingo dituzte Orion, eta gainontzeko egunetarako sarrerak eskuragarri daude.

Laugarren urtez jarraian, Gure Zirkuk geldialdia egingo du Orion, eta emankizunak ematen hasiko dira ostiral honetan. Lehenengo eguneko sarrerak amaituta badaude ere, interesa duten herritarrek, abuztuan zehar emango dituzten saioetarako sarrerak eskuratzeko aukera dute [ondorengo estekan](#).

Guztira, 16 saio egingo dituzte. Hain zuzen ere lau astez, ostegunetik igandera eskainiko dute ikuskizuna, beti 19:00etan.

Gure Zirkuak 16 emanaldi eskainiko ditu gaurtik aurrera

El Diario Vasco
ORIO.

Jueves, 3 de agosto 2023

Azken urteetan bezala, Gure Zirkua beste behin Orion izango da abuztu honetan. Gaurtik aurrera 16 saio eskainiko dituzte Mendibeltz zelaiaren inguruan jarri duten karpan.

Lau aste egingo dituzte gurean, gaurtik abuztuaren 26ra. Lehenengo eta azkeneko asteetan, hiruna saio eskainiko dituzte, eta abuztuaren 7ko eta 14ko asteetan, aldiz, bost saio. Emanaldi gehienak 19:00etan izango dira, eta igandetan bi pase izango dira: lehena eguerdiko 12:00etan, eta bigarrena, ohi bezala, 19:00etan.

Haur eta helduei zuzendutako proposamena da, betiko zirkuaren espiritua jasotzen duena, baina euskaraz, euskal publikoaren-tzat egokituta.

Sarrerak online soilik eskuratu daitezke Gure Zirkuaren webgunearen bidez, eta iazkoarekin alderatuta, ikuskizun berria izango da aurtengoa. Haur, heldu eta gazte, animatu eta gozatu euskal zirkua!

GUAIXE – 2023-08-03

Gure Zirkuak Sakanan karpa zabalduko du

Guaixe 2023ko abu. 3a



Gure Zirkua Urdiainen, 2018an. ARTXIBOA

Irailaren 8tik 10era eta 15etik 16ra euskal zirkua Arbizun izanen da, Nafarroa Oinezen eskutik.

Irailaren hasieran zabalduko dute Gure Zirkukoek karpa Arbizun, Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen festa antolatzen ari den Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolaren eskutik. Irailaren 8an (19:00etan), 9an (17:00etan eta 19:30ean) eta 10ean (18:00etan), ostiraletik igandera, eta 15ean (19:00etan) eta 16an (17:00etan eta 19:30ean), ostirala eta larunbata, izanen dira euskal zirkuaren emanaldiak. Sarrerak Gure Zirkuaren webgunean eros daitezke.

Bigarren aldia da Gure Zirkuak Sakana bisitatzen duena; aurrekoan ere Altsasuko Iñigo Aritzak antolatu zuen 2018ko Nafarroa Oinezekin etorri zen, Urdiainera.

KARKARA – 2023-08-17

Ekain Ibareguren: "Beste zirku batzuetan ikusten ez den familia osatu dugu"

Jabi Gonzalez Toston 2023ko abu. 17a



Ekain Ibareguren, Gure Zirkuko pailazoa. (Utzitakoa)

Gure Zirkuk Orion urtero abuztuan egiten duen egonaldiaren erdia gauzatu du jada. Hileko lehenengo asteburuarekin 700 emanaldi bete zituzten, eta Ekain Ibareguren (Azpeitia, 1996) pailazoa milagarrenera ere iritsiko direlakoan da.

700 emanalditik gora eskaini ditu Gure Zirkuk jada. Bidea hasi zenutenean pentsatzen al zenuten honaino irits zitekeenik proiektua?

Lehenengo biran ez dakit zenbat emanaldi eskainiko genituen, baina jarraitu egin genuenez, eta urtetik urtera emanaldiak gehitzen joan zirenez, 300era iritsi ginen. Orduan geure buruari zera esan genion: "Ostras, hau bada zerbait". Urtero martxa ona izan dugula ikusita, beraz, ez gaitu harritu 700. emanaldira iristeak. Era berean, honaino iritsi garela ikusita, milagarrenera iritsiko garelakoan gaude; ea hala den.

Proiektua oso sendo ikusten duzue oraindik, beraz?

Esan bezala, urteroko martxa hartu dugu, eta badakigu aurtengo bira amaitutakoan datorrenerako gauzak prestatzen hasiko garela. Horregatik, beti izaten gara beste bira baten esperoan.

Saioa birpentsatu egiten duzue eta beste forma bat ematen diozue urtetik urtera, ezta?

Egungo saioak ez dira hasierakoen modukoak. Urtero egiten dugu berritasunen bat sartzeko ahalegina, bai. Gainera, esango nuke, aurrekoekin alderatuta, gehien aldatu den ikuskizuna dela aurtengoa. Ez du iazkoarekin zer ikusirik. Dena den, egia da pailazoen esketxetan-eta txiste batzuk beti sartzen ditugula, oso ondo funtzionatzen dutelako. Niri dagokidanez, oso zaila da urtetik urtera malabarismoen ikuskizun berria sortzea. Horregatik, ariketak antzekoak izaten dira beti; horiek saltzeko modua da aldatzen duguna. Funtsean, edukia bera da, baina beste era batera eskainita, forma aldatuta.

Taldea bera ere aldatuko zen urte hauetan guztietan. Kide berriak batu, hasierako batzuek utzi...

Bai. Oraindik bagaude hasiera-hasieratik eusten diogunak, baina bide honetan izan dira beste lan konpromiso batzuegatik edo bestelako arrazoiengatik Gure Zirkua uztea erabaki dutenak. Bizi eredu hau gogorregia egiten zaielako utzi dute batzuek, adibidez. Aldi berean, jende berria ere batu zaigu taldera, noski; aurten, esaterako, Lur Aranburu bihurrikaria. Artista hasiberria da, 19 urte besterik ez ditu, eta indartsu sartu da, daukan dena ematen ari da.

Zentzu horretan, adin askotako artistak osatzen duzue Gure Zirkua: ibilbide luzea dutenak batzuk, eta hasten ari direnak, bestiak. Horrek ba al du eraginik zuen arteko harremanetan?

Musikariak urte askoan jotzen ibilitakoak dira, Iker [Galartza] eta Joseba [Usabiaga] ere aski ezagunak dira telebistan eta antzerkigintzan egin duten ibilbideagatik, eta Las Vegasen urte asko pasatu dituen eta Cirque du Soleil zirkua ezagunean aritutakoa den beste artista bat ere badugu taldean. Beste batzuek esperientzia gutxiago dugu horien aldean, baina familia handi bat osatu dugu guztion artean. Iritzi eta zaletasun desberdinak ditugu, baina oso ondo konpontzen gara, eta uste dut kanpotik ere antzeman egiten dela hori. Elkarrekin bizi gara, eta batera eta bestera ere elkarrekin joaten gara. Oriotarrek ondo dakite hori.

Hastapenetan oihartzun handia lortu zuen Gure Zirkua. Orain, akaso, zertxobait apaldu bada ere, jende asko erakartzen jarraitzen duzue. Nola lortzen duzue hori?

Jende askok urteroko ohitura bezala hartu du Gure Zirkura joatea. Oriora etorri, Xixario erretegiaren bazkaldu adibidez, eta gero, zirkura. Publiko fidela dugu, eta badira Oriora etorri beharrean, etxetik urrun egiten ditugun saioak ikustera joaten direnak ere. Aurten, Maulen hasi genuen bira, eta Hego Euskal Herriko ikusle ugari etorri zitzaizkigun.

Uste dut publikoaren maitasuna lortu dugula, eta jendea kontziente dela zirkuari eusteko egiten dugun esfortzuaz. Hilabeteak egiten ditugu karabanetan eta zirkuari bertan bizitzen, eta elurteren bat edo beste ere tokatu zaigu, maiatzean hasi eta abendura artekoa baita denboraldia. Abuztuan Orion egiten dugu hilabeteko egonaldia, eta Gabonetan Tolosan izaten gara. Jendeak badaki zeinen gogorra den bizimodu hori, eta, hala ere, saio bakoitzean benetakoa den alaitasuna transmititzeak bete egiten dituela uste dut. Esango nuke lehen aipatutako familia hori garela ikusi egiten dutela Gure Zirkuari, beste zirku batzuetan ikusi ez dutena.

Aurtengo uda ere aurrekoak bezain arrakastatsua izaten ari al da?

Denetarik izan dugu. Ikusle gehiago edo gutxiago, baina beti agertu dira esker oneko. Euskara gutxiago hitz egiten den eremuetan, esaterako, zailago da zirkuari betetzea. Hala ere, gerturatzen direnek berdin-berdin gozatzen dute, nahiz eta guztia ulertzeko gai ez izan.

Lehen aipatu duzun Orioko abuztuko egonaldia hitzordu finkoa bilakatu da Gure Zirkuarentzat. Zergatik?

Hainbat hilabetez herriz herri ibili ondoren, eskertu egiten dugu gelditzea, eta behar izaten dugu toki batean denbora gehiagorik egotea; izan ere, zirkuari gurekin bizi diren hamahiru edo hamalau ume ditugu, artisten seme-alabak. Gainera, urteen poderioz, Orion beste lagun kuadrilla edo familia bat ere sortu dugu bertako jendearekin, eta txikiek ere lagunak dituzte bertan. Ondorioz, lana egiteari utzi gabe, beste martxa batean aritzen gara, lasaiago eta mendiaz eta hondartzaz gozatuz.

KARKARA – 2023-08-24

Ahitu egin dira Gure Zirkuko azken emanaldietarako sarrerak

Aiora Larrañaga Solaberrieta 2023ko abu. 24a



***Gure Zirkua*ren karpa ingurua jendez beteta. (Gure Zirkua)**

Gaurtik larunbatera bitartean eskainiko ditu Gure Zirkuko azken saioak Orion.

Abuztuko azken txanpan sartuta, Gure Zirkua egonaldia ere bukaerara iristen ari da. Gaurtik larunbatera bitartean eskainiko ditu azken emanaldiak herrian, irailaren 8an Arbizura joan aurretik, eta internetez ahitu egin dira azken saioetarako sarrerak. Aurtengoan ere herritar eta bisitari ugari igaro da Gure Zirkuko karpatik, eta Gure Zirkuko kideek eskerrak eman dizkiete: " Bertako bizilagunak, urtero bisitan etortzen zaretenak, eta aurreko lehenengoaz azaldu zaretenak. Eskerrik asko guztiguztiei!", azaldu dute sare sozialen bidez.

Poxpolo, Mokolo ta Konpainia

Un reportaje de Mikel Lakunza

27-08-23



Iker Galartza, Poxpolo, y Joseba, Don Martin, en una de las actuaciones de Gure Zirkua.
| FOTO: JUAN LAZKANO

Joseba Usabiaga es, hoy en día, uno de los actores vascos más reconocidos a nivel estatal. Ha protagonizado muchas series y películas durante estos años. En 2017 interpretó a Martin Eleizegi en la película *Handia*. Este filme fue premiado con diez premios Goya y Usabiaga deslumbró al público por su gran interpretación.

Sin embargo, además de su faceta como actor, en su día a día trabaja en un proyecto “muy especial” junto con su gran amigo Iker Galartza. Ambos son los protagonistas de Gure Zirkua, el circo vasco que lleva ya seis años y más de 700 actuaciones cosechando éxitos. Todo se remonta al año 1996, cuando un grupo de jóvenes estudiantes de los Escolapios de Tolosa coincidieron con Iker Galartza, Poxpolo, e Iñaki Odriozola, Mokolo, como monitores. “Nosotros

teníamos 15 años, Iker tenía 19 e Iñaki 18, cuando en el colegio nos pidieron que preparásemos un pequeño espectáculo para la fiesta de fin de curso. El espectáculo gustó, y así es como empezamos poco a poco a actuar”, explica Usabiaga. Sin pensar ni preparar mucho el proyecto, los integrantes empezaron a recibir llamadas de diferentes pueblos y así es como nació Poxpolo, Mokolo ta Konpainia en 1996.



“Soy más de cenas en la sociedad con los amigos que de círculos de altas esferas”

Mikel Lacunza

Conforme fueron pasando los años, el éxito del grupo fue total. “El primer años hicimos tres actuaciones. El segundo fueron seis, el tercero 20, y el cuarto año ya hicimos más de 60 actuaciones” afirma Joseba. Pero, cuando todo iba a pedir de boca, el grupo recibió un tremendo golpe. En 2009 falleció Iñaki Odriozola, Mokolo. “Todo iba perfecto. Estábamos en la cúspide y se nos fue Iñaki, que era imprescindible en todo. Además de lo que hacía en el escenario, era quien gestionaba todo. Después de unos meses parados, decidimos seguir, también por el” afirma Joseba. Poxpolo ta Konpainia siguió funcionando muy bien, pero unos años más tarde, en 2016, el grupo tomó la decisión de terminar con esta etapa y empezar a preparar el proyecto de Gure

Zirkua, otro tipo de iniciativa que, con Iker Galartza al mando, está siendo todo un éxito. “Hemos pasado las 700 actuaciones esta misma semana y hemos conseguido vender todas las entradas en prácticamente todas las actuaciones. Estamos muy contentos” cuenta Joseba.

Los principios no fueron fáciles. Lo que más costó, según explica el actor, fue aprender a gestionar todo el tiempo que uno pasa fuera de casa. Pero, cada vez es todo “más fácil” asegura. Al preguntarle si Gure Zirkua se marca algún objetivo a largo plazo, la respuesta es firme. “Seguimos con el objetivo de no acomodarnos. Nos gusta ir a pueblos que por un motivo u otro no son tan euskaldunes y sentir que podemos aportar nuestro granito de arena al euskera y a la cultura”. A Usabiaga y Galartza también les gustaría poder hacer una pequeña incursión al otro lado del charco. “Por ejemplo, nos gustaría poder llevar el circo a Argentina algún día. Es muy difícil, pero tenemos ese sueño. Sería muy bonito poder actuar allí”, explicado. En un futuro, Usabiaga busca poder seguir disfrutando de su trabajo y sus amigos, como ha hecho siempre.

GUAIXE – 2023-09-12

"Etortzen dena ez da damutzen"



[Iñaki Rubio Mendoza](#) 2023ko ira. 12a



Bost urteren ondoren, Sakanara itzuli da Gure Zirkua. Arbizun zazpi emanaldi eginen ditu, irailaren 8tik 16ra, Kattuka haur eskolaren belardian.

Soka finaren ganean itzulipurdika, pilotak gora eta behera jaurtiz, gorputzak bihurrituz, aurrean dituztenen barre algarak eraginez eta, batez ere, ongi pasatuz, 700 emanaldi baino gehiago eskaini dituzte Gure Zirkuko artistek, Euskal Herriko hamaika herri, hiri eta auzo karpa gorri-horiaren pean magiaz zopatus. Sei urte atzera sortu zuen Euskal Herriko lehen karpa ibiltaria Iker Galartza amezketarrak, "bihotz-bihotzetik". Ez zen samurra izan, baina apurka-apurka aitzindaria den proiektua osatu dutela dio, umiltasuna ardatz izanik. Arbizu izanen da hurrengo parada, eta Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolak antolatuko duen Nafarroa Oinezaren eskutik eginen du. Zazpi emanaldi eskainiko dituzte osotara, irailaren 8tik 16ra. Kattuka haur eskolaren belardian muntatu dute zirkua. Sarrerak Gure Zirkua webgunean eros daitezke jada.



Gure Zirkuaren karpa Arbizun kokatuta dago. ANDONI IRAZUSTABERRENA

Seigarren denboraldia du aurtengoa Gure Zirkuak. Espero zenuten hainbesterainoko arrakasta?

Hainbesterainokoa.. ez dakit. Zintzoa banaiz, inor ez da sartzan halako mugida batean paseotxo bat ematearren, gure malabarista Ekainek dioen gisan. Asmoa zen, eta da, noski, Euskal Herrian zehar ibili eta bertan finkatzea. Oraindik ere eskaera asko ditugu, eskualde anitz haztatu ez baditugu ere, pandemiagatik nagusiki. Geroztik, luzatu egin ditugu birak, bost bat hilabetetik zortzira, hor nonbait.

Normalean, Pazko astean hasi ohi ditugu emanaldiak. Aurten maiatzaren lehenean izan da. Azaroaren akaberan jasotzen ditugu oihalak, baina Eguberritako bereziak egiten ditugu, hilabeteko atsedenaldiaren ostean.

Sakanara itzuli zarete bost urteren ondoren.

Urdinen izan ginen 2018an, Iñigo Aritza Ikastolak antolatu zuen Nafarroa Oinezen eskutik. Ezezagunagoak ginen orduan, eta astebetetz aritu ginen. Orain, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolaren eskutik egin dugu, Arbizun. Bi asteburu betetzeko apustua egin dugu, zirkua muntatzea kostatu zaigunarekin gainera... Arbizu txikia da, baina Sakanako eta inguruko herritarrak etortzea espero dugu.

Zer aurkituko du ikusleak karpa barruan?

Magia sortzen da. Badakit topikoa dirudiela, baina ez dut uste oker nabilenik. Sarrerako tunelean sartu orduko, mundu magiko batean sartzan zara. Argiak, dekoratua, zuzeneko musika... etortzen dena ez da damutzen.

Aurtengo denboraldiak badu berezitasunik?

Aldaketa handia egin dugu, koxka handia igo dugu joan zen urtetik hona. Saiatzen ginen zirku klasiko baten estiloa jarraitzen. Konfort-zona horretatik irteten saiatu gara, emanaldiak, estetika... aldatuz. Finean, istorio bat kontatzen dugu, ez ditugu

zirkuko numero klasikoak bata bestearen atzean itsasten, dena doa bilgarri baten barruan, emanaldiari zentzua emanez.

Nola sortzen da zirku bat?

Lan handia eginez, poliki-poliki. Zirku gehienak herentziazkoak dira, gurasoengandik seme-alabengana heldutakoak, edota izen handikoak.... Gurea afizioa da, zirkuazaleak gara. Baina profesionalki ogia ateratzeko gogotik egin behar da lan, arlo guztietan bezala, noski. Pailazogintzan ere bai, numero polit eta barregarri bat egin nahi baduzu lana mardula da, entseatu, entseatu eta entseatu, ez dago besterik. Ikusten dena gozagarria bada aurretik asko egin delako da; ikusten dena lardaskeria bada, lan eskasa egon da atzean.

Erabaki arriskatua izan zen?

Beti da arriskatua zer edo zer berria sortzea, ez duzulako erreferentziarik; atera daiteke ondo edo gaizki. Katalunian badute beren zirkuak, Circ Cric, eta oso famatu egin ziren. Horixe izan zen gure erreferentzia gertukoena, baina gurean halakorik egiteak zaila zirudien. Ez da gure asmoa inoren erreferente izatea, baina bidea urratu dugu, bihar etorriko direnei aukerak zabalduz.

Zein da zirkuak oinarri duen zutabe edo filosofia?

Elkarbizitza da gure masta zentrala, egunerokotasuna. Elkarrekin lo egin, gosaldu, afaldu... bizikidetzak ona izan behar du emaitza ona izan dadin. Talde anitza osatzen dugu, eta denak gara berdinak, inor ez da besteak baino gehiago. Ardatza umiltasuna da. Gerta daiteke emanaldiren batean urliak sandiak baino ikuskizun osoagoa izatea; apika, sandiak gehiago lagunduko du muntaketa lanetan, esaterako. Egiten dugun lana ere orekatua izan dadin saiatzen gara. Halaber, gure kabuz egiten dugu muntaketa eta desmuntatzea, ez dugu kanpoko norbait kontratatzen. Baliteke Arbizukoa guztiz horrela ez izatea, herri osoa hurbildu baitzaigu laguntzera. Eskertzekoa benetan.

Sarrerako tunelean sartu orduko mundu magiko batean murgiltzen zara

Gaur gaurkoz, nork osatzen duzue lantaldea?

Akrobazia lanetan, Lander Briones, Nora Galartza, Beñat Maiz, Iraitz Lizarraga eta Ortzi Acosta dabilta. Elene Galartza da gure trapezista, eta, Iñaki Galartza, ekilibrista. Ekain Iburgurenak jaurtitzen ditu malabarrak, pailazoa da eta gorputza bihurrituz artea egiten du Lur Aranburu kontorsionistak. Magoa ere badugu, noski: Imanol Ituño. Azkenik, Joseba Usabiaga eta biok gara pailazo eta aurkezleak. Zuzeneko musika jotzen dute Ibon Mendibilek eta Unai Zabaletak. Teknikoek, sarrerako langileek, krispeta saltzaileek... osatzen dute lan taldea. Gure seme-alabak ere badabilta hor eta hemen, gauzatxoak eginez.

Dena egiten duzue elkarrekin eta elkarrentzako.

Bai, familia gara. Egunaren 24 orduak batera ematen ditugu. Bakoitzaren arazoak guztionak dira, eta dena konpartitzen dugu. Zoragarria da. Nork bere sendia du, baina denok batzen gaituen familia da Gure Zirkuak.

Iñaki Odriozola Mokolorekin hasi zinen jardunean, eta bikote artistikoa osatu zenuten.

Oso gazterik hasi ginen 17 urterekin. Edonon antzeztuko zuketen bi pailazo hasiberri ginen: eskoletan, ganbaretan, elizetan, antzoki dotoreetan... hamaika tokitan egin ditugu hamaika emanaldi. Egun, bestelakoa da proposamena. Kanean jarraitzen dugu, noski, baina formatu desberdin batekin, Gure Zirkuarekin.

Marratxoa zeharkatzeko aukera ematen dit Poxpolok

Harekin sortu zenuen Poxpolo, Gure Zirkuan segida izan duen alter egoa. Zer ematen dizu pertsonaiak?

Sudur gorria eta izena. Horiekin nahikoa dut Iker Galartzak esanen ez lituzkeen gauzak esan ahal izateko. Marratxoa zeharkatzeko aukera ematen dit Poxpolok.

Badu berezitasunik zirku tradizional batekin alderatuz?

Ez nuke jakinen esaten. Zirku bat zirku bat da, bakoitza bere estilo, hizkuntza eta abarrekin. Gure diferentzia hizkuntza da, ez dela halakorik euskaraz.

Zirkuaren kontzeptua birpentsatu duzue.

Bai, tira... garaikideagoak izaten saiatzen gara, baina beste konpainia batzuk ere saiatu dira garai berrietara moldatzen. Zirku polit eta txukunak daude, gauza zoragarriak egiten dituztenak.

Aurreiritzi asko ditu zirkuak?

Askok aldatu dira gauzak. Zirku batean pentsatzean berehala datorkigu 1920. hamarkadako karpa klasiko bat, animalia exotiko eta guzti. Kontua da, ordea, egungo zirkuak ez duela zerikusirik horrekin. Are gehiago, imajinario hori guztia okerra da. Animalia exotikoen "erabilera" 60 eta 70. hamarkadetan sartu zen, animalien trafikoa hasi zenetik. Nahiko berria da hori. Hiruzpalau hamarkada irauten dituen horrek, zirkuaren irudia lausotuz. Lehenago ez zen hala izan, eta aurrerantzean ez da gehiago izanen.

Aurreiritziek trabak sortu dizkizute?

Bai. Oraindik ere animaliekin eta zikinkeriarekin lotzen da zirkuak, eta leku askotan bizilagunak deseroso sentitu dira etxe aurrean halakorik edukitzeagatik. Dena den, berehala konturatzen dira ez dela horrela; dena dela gozamina, alaitasuna eta txukuntasuna.

Zirkua soilik haurrendako den mantra hautsi duzue?

Bai, horretan egin dugu lan bereziki. Askotan tentazioa izaten da ordea, zirkuak ere txikienei zuzentzeko mania izan baitu, bereziki telebista sortu zenetik. Espinete, Don Pinpon... umeak erakartzeko egiten da. Guk argi genuen haurrak ez genituela panpina bat ateraz erakarriko, egiten dakiguna eginez baizik, eta, noski, helduek ere gozatzeko moduko edukia sortuz. Mundu guztia etor dadila gu ikustera.

Hain zuzen ere, haurrendako zirku ikastaroak ere egin dituzue.

Haurrek berek eskatzen digute. Tailerrak egiten ditugu alde guztietatik, jakinda haurren garapenerako ere oso onuragarria dela. Psikomotrizitatea lantzen da, autoestimua...

Artista lokalen aldeko apustua sendoa da.

Hala da. Eta ez dira gehiegi ere. Aniztasuna da gure helburua, baita ikuskizunean ere, baina ez da erraza. Kontortsionistak bizpahiru egonen dira Euskal Herrian, eta horietako bat dugu gurekin. Hiru pilotarekin malabarrak egiten dituztenak egonen dira, ziur, baina Ekainek bezala 7 airera jaurtitzen dituztenak... Gertatu izan zaigu langileetako bat lesionatzea. Zorionez, beti izan dugu pertsona ikaragarrien laguntza. Valeria, esaterako, hilabete eta erdiz egon zen gurekin. Argentinarra da bera, eta asko ikasi genuen berarengandik, beste ikuspuntu bat zuen. Uda honetan ere, gure lankideetako baten lagun Jalton brasildarra izan dugu gurean, Circ du Soleil-en ariturikoa, eta asko irakatsi digu. Zirkua nazioartekoa da, ezin dugu ahaztu, eta edonork erakutsi dakioke edonori.

Euskal Herriko mugak zeharkatzea pentsatu duzue inoiz?

Mundiala izanen litzateke. Euskaldunak mundu guztian zehar barreiatu gaude; pentsa Argentinara edo Idahora joanen bagina... Bertsolariak, trikitilariak... euskal kulturako diziplina askotako jendea askotan joaten da hara. Zergatik ez gu joan? Hitz potoloak dira, baina... Egunen batean posible balitz, ez dugu zalantzarik eginen.

Adin guztietako jendea hurbildu daiteke gu ikustera

Euskal kultura ere bada zuen ardatzetako bat.

Euskal kultura sustatzeko modu bat da Gure Zirkua. Hizkuntza, abestiak, hitz jokoak, musika... Nork esanen liguke zirku-ikuskizun batean errezitatuko genituenik Bernart Etxepareren olerkiak. Oso gureak diren gauzak lantzen ditugu.

Zer nolako balantzea egiten duzu?

Hainbeste urteren ondoren, garrantzitsuena da hasierako inozentzia puntu hori galdu ez dugula. Ezjakintasun hutsetik salto ausarta egin genuen, eta jendearen babesa ikaragarria izan zen; horrek gogorazten digu egunero-egunero oinak lurrean eduki behar ditugula. Ezin dugu hasierako ilusio eta umiltasun hori galdu. Dena ez da urre kolorekoa, noski. Batzuetan kosta egiten da. Ez da berdina Amezketa edo Ezkerraldean aritzea. Maulen egon gara berriki, eta Tafallan izanen gara aurki. Herria, baina, horrela egiten da. Dena eskura edukiko bagenu ez ginatke hain ondo ariko agian. Hor jarri dugu gogoia: euskaraz ez dakien jendea ere gerturatzea nahi dugu, hizkuntzaz maitemindu dadin, momentu dibertigarri eta polit bat pasaz. 700 emanaldi baino gehiago egin ditugu jada.

Luzaroan izanen dugu Gure Zirkua?

Geratzeko etorri da. Gorabeherak izanen ditugu, ziur naiz, garai oparagoak eta urriagoak. Baina Gure Zirkua martxan jarri ditu gurpilak, eta aitzindaria izan da horretan. Beste proiektu asko sortuko dira, eta gu erretiroa hartuta joanen gara ondorengoek zer egiten duten ikustera. Horregatik da Gure Zirkua, gurea izan dadin eta guretzat hemen gera dadin.

EUSKALERRIA IRRATIA – 2023-09-14

Iker Galartza: "Herri honek beharrezkoa zuen zirku bat euskaraz"

Euskalerrria Irratia 2023ko ira. 14a

Aktorea, gidoilaria eta pailazoa. Azkenaldian, Galartza baino gehiago Poxpolo da. Euskal Herri osoa zeharkatzen ari den Gure Zirkuaz eta umoreaz mintzatu gara artista amezketarrarekin. Haren esanetan, umoreak ez du mugarik umorea egiten duena bere buruari barre egiteko gai bada.

<https://euskalerrriairratia.eus/nafarroa/16946887759>
[33-iker-galartza](#)

DIARIO DE NOTICIAS – 2023-09-19

'Gure Zirkua' ofrecerá nueve funciones en Tafalla

El primer circo itinerante en euskera ofrecerá nueve sesiones del 22 de septiembre al 9 de octubre y las entradas ya están a la venta

Saioa Martínez

TAFALLA | 19-09-23



Carpa de circo de 'Gure Zirkua' CEDIDA

Desde aquel lejano 2018, **Gure Zirkua no ha dejado de visitar Navarra** cada año. Sin embargo, Tafalla y su comarca nunca había sido una parada en el camino. Hasta ahora. Y es que gracias a la apuesta decidida del Ayuntamiento de Tafalla, junto a la ayuda de la red Agerraldia, el primer circo itinerante completamente en euskera ofrecerá **nueve funciones entre el 22 de septiembre y el 10 de octubre** en el parking de la calle Paseo de la República, o 'La Morena'. En concreto, las sesiones serán los días 22, 23, 24 29

y 30 de septiembre y el 1, 6 y 7 de octubre; los viernes a las 19.00 horas, mientras que sábados y domingos serán a las 17.00 horas. El sábado 30 de septiembre, habrá doble sesión. Las entradas, cuyo precio asciende a 14 euros, ya pueden adquirirse en la página web del propio circo: www.gurezirkua.eus.

Rostros conocidos

Iker Galarza, conocido popularmente por sus actuaciones televisivas en *Goenkale* (Etb1), *Vaya Semanita* (Etb2) o *Allí Abajo* (Antena 3), decidió dejarlo todo y comprarse una carpa de circo para crear 'Gure Zirkua', el primero íntegramente en euskera. Desde su puesta en marcha ha **cosechado grandes éxitos** por la geografía vasco-navarra, ofreciendo un espectáculo que combina el arte, la magia y el humor propios del circo con espectáculos de primera calidad.

Según explica, el espectáculo es **apto para todos los públicos y no es necesario entender euskera**. "El circo es universal, hay gente que duda por el idioma pero luego acude y se da cuenta que el malabarista o el trapecista no hablan, y que los payasos son muy visuales y te ríes igual".

EUSKALERRIA IRRATIA – 2023-09-20

Tafallan bederatzi emanaldi eginen ditu Gure Zirkuak

Juan Kruz Lakasta Zubero 2023ko ira. 20a



Sarrerak dagoeneko salgai daude, irailaren 22tik urriaren 9ra eginen dituzten saiootarako

2018tik Gure Zirkuak sei bira egin ditu Euskal Herrian zehar, baina orain arte sekula ez da Tafallan izan. Honako honetan, Tafallako Udalak eta Agerraldia ekimenak elkarlanean jardun dute, euskarazko lehen zirku ibiltaria haienera irits dadin. “Apustu handia egin dugu, eta dena ongi ateratzea espero dugu, denok ederki gozatzea”, azaldu du Iker Galartza, Gure Zirkuaren buruak, Euskalerrria Irratiko Metropoli Forala saioan egin dioten elkarrizketan.

Karpa Errepublikaren pasealekuko aparkalekuan paratu dute. Emanaldiak irailaren 22, 23, 23, 29 eta 30ean izanen dira, baita urriaren 1, 6 eta 7an ere. Ostiraletan, saioak 19:00etan hasiko dira. Larunbatetan eta igandeetan, berriz, 17:00etan. Irailaren 30ean, larunbatarekin, bi emanaldi eginen dituzte.

Sarrerak dagoeneko salgai daude, 14 euroan, gurezirkua.eus webgunean.

GOIENA – 2023-09-21

Gure Zirkuak hamaika emanaldi eskainiko ditu Aretxabaletan

Mirari Altube Arrese 2023ko ira. 21a



Gure Zirkuak Arrasaten emandako ikuskizuneko une bat.

Hiru urteren ostean Gure Zirkua Debagoienara itzuliko da, Aretxabaletara hain zuzen ere; Mondragon Unibertsitateko campusaren alboan dagoen gunean jarriko dute karpa. Urriaren 13a eta 28a bitartean hamaika emanaldi eskainiko dituzte. Sarrerak gaurtik egongo dira salgai webgunean: www.gurezirkua.eus.

Emanaldiak honako egunetan izango dira: 13, 14, 15, 20, 21, 22, 27 eta 28.



Eskoriatzan, Elgetan eta Arrasaten egondakoak dira aurretik zirku ibiltariaren arima den Iker Galartza eta haren taldekideak, eta herri guztietan harrera ezin beroagoa egin zieten.

GOIENA – 2023-10-11

Iker Galartza: "Aurten apustu garrantzitsuak egin ditugu, eta harro eta pozik gaude"

Larraitz Zeberio Lekuona 2023ko urr. 11a

2018an egin zuen *Gure zirkuak* lehen bira, eta Eskoriatza eta Elgeta izan zituen geltoki; Arrasaten izan zen 2020an, eta Aretxabaletan dira urriaren 28ra bitartean. Etzi, egubakoitza, hasita, hamaika emanaldi eskainiko dituzte guztira, MUko Ikus-entzunezko fakultatearen ondoan kokatu duten karpan. Ikuskizun berriarekin datoz. [Gurezirkua.eus](https://gurezirkua.eus) atarian daude sarrerak eskuragarri, hamalau eurotan.

<https://goiena.eus/debagoiena/1697035432310-iker-galartza-aurten-apustu-garrantzitsuak-egin-ditugu-eta-harro-eta-pozik-gaude>

Llega la magia de 'Gure Zirkua'

Espectáculo en euskera. La carpa se instalará junto al campus de Mondragon Unibertsitatea y ofrecerá funciones los fines de semana hasta el 28 de octubre

Iker Murillo

Miércoles, 11 de octubre 2023

La magia, la risa y el asombro llegan para conquistar Aretxabaleta. 'Gure Zirkua' abre su carpa junto al campus de Mondragon Unibertsitatea para ofrecer un espectáculo inigualable, íntegramente en euskera, dirigido a personas de todas las edades.

Iker Galartza, conocido popularmente por sus actuaciones televisivas en 'Goenkale' (ETB 1), 'Vaya Semanita' (ETB 2) o 'Allí Abajo (Antena 3)', es el alma mater de un proyecto que desde su puesta en marcha hace seis años ha cosechado grandes éxitos por la geografía vasco-navarra, ofreciendo un espectáculo que combina el arte, la magia y el humor propios del circo con espectáculos de primera calidad.

Los viernes las funciones serán a las 19.00 horas; los sábados a las 17.00 y 19.30 horas; y los domingos a las 18.00

El circo ofrecerá en Aretxabaleta varias funciones, que se distribuirán a lo largo de los próximos fines de semana, es decir, de viernes a domingo. Los viernes (13, 20 y 27) las funciones serán a las 19.00 horas; los sábados (14, 21 y 28) a las 17.00 y 19.30 horas; y los domingos (15 y 22) a las 18.00. Las entradas pueden adquirirse a través de la web de 'Gure Zirkua' con entradas a un precio de 14 euros.

Expectación

Desde su lanzamiento, este circo ha ido sumando un éxito tras otro. Lo más destacado de este espectáculo es su accesibilidad para todos los públicos; no es necesario entender euskera para disfrutarlo. Como subraya el propio Galartza, «el circo es universal; algunas personas pueden dudar debido al idioma, pero luego asisten y se dan cuenta de que los malabaristas y los trapecistas no necesitan palabras, y los payasos son altamente visuales y te hacen reír de igual manera».

«El circo es abrir las puertas a la fantasía. Todo lo imposible, un viaje a un mundo mágico que puede hacerse realidad. Se podrá disfrutar del circo más famoso de Euskal Herria, que ofrece malabares, trapecistas, magia, música, luz...», subrayan desde el propio circo. «Queremos compartir nuestra profesión, belleza y valentía con todo el pueblo, con ciudadanos y ciudadanas de todas las edades, Es un circo con una personalidad especial. Disfrutaremos de lo increíble; y nos sorprenderemos del equilibrio, la fuerza, el peligro, la habilidad y la alegría que crearán dentro de la carpa. Todas las sensaciones y emociones formarán una sinfonía singular y compartida; porque sólo el circo es capaz de arrancar sonrisas irresistibles, de producir escalofríos que sacudan todo el cuerpo, y, en fin, de provocar la felicidad que nos permite celebrar la vida».

Una familia

Respecto a los artistas, Gure Zirkua dispone de destacados talentos, como la contorsionista de Ondarroa Lur Aranburu. «Desde pequeña y tengo conciencia mi sueño ha sido trabajar en un circo», expresaba la ondarrutarra recientemente en un reportaje publicado en este periódico. «He cumplido lo que quería que era trabajar en el mundo del espectáculo y en este momento estoy muy satisfecha con mi trayectoria», expresa la joven.

El gasteiztarra Ortzi Acosta es otro de los acróbatas y talentos del circo, que también se encarga de enseñar a los más pequeños las técnicas de la

acrobacia. Acosta fue campeón nacional como gimnasta profesional cinco años de los quince que estuvo en el equipo nacional, y después estuvo otros cinco años trabajando en el Cirque du Soleil en Las Vegas. «Volví porque ya me quería asentar y formar una familia, y tenía claro que lo quería hacer en mi tierra con nuestro idioma y nuestra cultura», señala.

Gure Zirkua es un proyecto que tiene como uno de sus pilares la familia. Iker Galartza señala que ellos, tras la carpa, viven con su seres queridos, y que tratan de representar eso en sus actuaciones. La vida de los trabajadores del circo es un estilo de vida nómada, puesto que andan cambiando de pueblo una vez cada dos semanas, por lo que en el otro lado del espacio de representación se sitúan varios bungalós en los que hacen su día a día acompañado de sus parejas, amigos e hijos. Allí comen, duermen, charlan, se cortan el pelo y hacen toda una vida.

Los niños forman gran parte de estas experiencias. Este año por ejemplo, la función comienza con un número protagonizado por una niña, que interactúa con el presentador Don Martín, y realiza algunas acrobacias, «Aunque suene a tópico, el circo es la familia y los niños son una parte importante de ella», destaca Galartza.

GOIENA – 2023-10-16

Itzuli da Gure Zirkua Debagoienara

Julen Murua Mesonero 2023ko urr. 16a

Arrasaten izan ziren azkenekoz 2020an eta aurten Aretxabaletan izango dira hilaren 28a arte; guztira hamaika emanaldi eskainiko dituzte. Jendetza hurbildu zen zapatuan MUko Ikus-entzunezko fakultatearen parean jarri duten karpara, eta bertaratu zirenek asko gozatu zuten emanaldia.

<https://goiena.eus/aretxabaleta/1697469443092-itzuli-da-gure-zirkua-debagoienara>

NOAUA – 2023-10-11

Usurbil, Gure Zirkuaren bira amaierako azken geltokia

Noaua Aldizkaria 2023ko urr. 11a

Hamabi emanaldi eskainiko ditu Gure Zirkuak azaroaren 3tik 18ra Urbil pareko aparkalekuan.

Seigarren bira arrakastatsua Usurbilen amaituko duela iragarri berri du azken orduotan Gure Zirkuak. Bira honen azken geltokia Urbil pareko aparkalekua izango dute. Azaroaren 3tik 18ra hamabi emanaldi iragarri dituzte. Ikuskizunoz gozatzeko sarrerak datorren astelehenetik, urriaren 16tik aurrera salgai jarriko dituztela berri eman dute.

Egun eta orduotarako programatu dituzte ikuskizunok:

- Azaroak 3, ostirala: 19:00.
- Azaroak 4, larunbata: 16:30/19:00.
- Azaroak 5, igandea: 17:00.
- Azaroak 10, ostirala: 19:00.
- Azaroak 11, larunbata: 16:30/19:00.
- Azaroak 12, igandea: 12:00/17:00.
- Azaroak 17, ostirala: 19:00.
- Azaroak 18, larunbata: 16:30/19:00.

Gure Zirkua

Harrera jendetsua izan ohi du, Gure Zirkuak bisitatu dituen Euskal Herriko txokoetan. "Nortasun berezi, xeble eta irribarretsua duten artistez osatutako konpainiak ezinezkoarekin jolas egin asmo du, eta beren ametsetako ikuskizuna eskaini. Beren arte eskuzabal eta herrikoia erakutsi nahi digute. Beren lanbidea, edertasuna eta ausardia elkarbanatu nahi dute herri osoarekin, adin eta maila guztietarako herritarrekin", hala aurkeztu digute Gure Zirkua bere sustatzaileek.

Iragarria dutenez, "Gure Zirkuan sinetsi ezin dena gozatuko dugu; eta karpa barruko giroa osatuko duten orekarekin, indarrarekin, arriskuarekin, trebetasunarekin eta pozarekin harrituko gara".

Sarrerak eta informazio gehiago, gurezirkua.eus atarian.

GOIENA – 2023-10-12

Iker Galartza: "Dekoratu eta bestelako berrikuntza asko ditugu"

Aitziber Aranburuzabala Juldain 2023ko urr. 12a

Seigarren bira borobiltzen ari da Gure Zirkua. Bihar, egubakoitza, hasita, hamaika emanaldi eskainiko dituzte guztira, Aretxabaletako MUko Ikus-entzunezko fakultatearen ondoan kokatu duten karpan. Iker Galartza, Poxpolo pailazoa eta Gure Zirkuko arduraduna gonbidatu dute asteon, Arrasate Irratiko *Igo Autobusera!* saiora.

Gurezirkua.eus atarian daude sarrerak, hamalau eurotan, eskuragarri.

Tafallatik etorri zarete; zer moduz ibili zarete Nafarroa aldean?

Nafarroa oso anitza da, bada, Sakanan, adibidez, oso ondo ibili gara Arbizun egon garenean, gune oso euskalduna da, baina Tafallako egoera bestelakoa da. Han ere oso gustura ibili gara, oso ondo hartu gaituzte, baina kostatu zaigu egun batzuetan harmailak betetzea.

Izan ere, ikuskizun bera egiten duzue toki guztietan, baina hartzeko modua ezberdina da, ezta?

Aurtengo biran apustu garrantzitsuak egin ditugu, eta oso harro eta pozik gaude. Maulen izan gara, Portugaleten eta Tafallan ere bai; hortaz, Euskal Herria puntarik punta zeharkatu dugu eta, tartean, Elorrion eta Markinan ere izan gara, eta, Aretxabaletan gaude orain; lurralde erosoagoak dira batzuk, baina ongi etorriak izan gara, toki guztietan.

Seigarren bira da egiten ari zaretena, beraz, seigarren ikuskizuna.

Urtero ikuskizun bat estreinatu dugu, beraz, Arrasateko emanaldietan izan zirenek oso bestelako espektakulua topatuko dute Aretxabaletakoetara etorriz gero. Aurreko batean komentatzen ibili ginen Frantzian hango zirku batek lau urteko bira egiten duela, baina Euskal Herria txikia da eta emanaldietako zonaldeak urtetik urtera errepikatzen direla kontuan hartuta, urtero ikuskizun berria estreinatzen bultzatzen gaitu.

Zelako berrikuntzak topatuko ditugu, adibidez?

Askotarikoak. Ausartak izan gara, eta koska bat gora egin dugu. Lantaldean jende berdinarekin urte asko ari gara lanean eta, gure mugak ditugun arren, gauza berriak sortzeko ahalegina egiten dugu eta beste behin lortu dugu gauza berriak asmatzea. Adibidez: dekoratu berriak daude eta abestiak goitik behera aldatu ditugu; akrobatak beste era batean ikusiko ditugu goian, eta Ekain malabarista, orain arte

moduan pilotarekin eta txapelarekin beharrea, teniseko erraketekin. Topikoa da, baina gure tunelean sartzea magikoa da!

Iker Galartza: "Aurten apustu garrantzitsuak egin ditugu, eta harro eta pozik gaude"

Zure ametsa zen euskal zirkua sortzea; sortu zenuen eta arrakastarekin ari zarete irauten.

Irautea ez da samurra, baina segi egin behar da askotariko zailtasunekin: eguraldia, karpa muntatzeko toki aproposa topatzea... Baina hortxe gabiltza borrokarako indartsu eta gogotsu, hasierako ilusioarekin eta umiltasunarekin. Horrek jarri gaitu gauden tokian.

Bidean gauza asko ikasita ere bai.

Bai, horixe! Orain azkarrago muntatzen dugu karpa, esatera- ko. Kondizio hobetan ere bagaude, karabana gehiago ditugu, bakoitzak bere *roulotte*-a du orain. Gauzak hobetzea lortu dugu, lan eta bizi baldintzak duinagoak. Hala ere, zirkua zirkua da, ibiltariak gara eta toki ezberdinetan egokitzen jakin behar da. Lantaldea baino familia da zuena.

Sei urtetan kide berak zarete?

Zertxobait handitu da familia, eta oinarrian, hezurdura nagusia mantentzen dugu. Gaur egun 20 lagun gara, eta horietatik 17 Arrasaten egon ginen. Azken hiru urtetan, bi baja izan ditugu, eta horien orde, bi kide berri etorri dira. Hasierako estrukturari eusten diogu eta inportantea da hori.

Iker Galartza: "Hastapenetako familiaren edo lantaldearen hezurdura nagusia mantentzen dugu"

Lantalde horretan zure semea eta alaba ere badaude.

Bai, laster akaso aitari ipurdiko bat emango diote, baina oraindik pozik eusten diete. Zaharrena nerabezaro bete-betean dago, baina zirkuari heltzen dio oraindik. Familia guztietan moduan, negoziazioak izaten ditugu: oraintxe lagunekin, gero gurekin... Pena emango lidake ikasi duten guztiarekin zirkua albo batera uzteak, beraz, luzaroan eustea nahiko nuke.

Oihal akrobaziak egiten dituen Agurtzane Telleria arrasatearrak zuekin jarraitzen du?

Ez, bajatako bat da hori. Beste bizitza proiektu bati heldu dio, eta amatasunari denbora eskaini behar ziola esan zigun. Sarritan bidaltzen dizkigu Nora txikiaren argazkiak, eta Aretxa- baletan ere gertu-gertu izango da, seguru.

**Hamaika emanaldi eskainiko dituzue urriaren 28ra bitartean.
Zelan doa sarrera salmenta?**

Egunaren arabera; emanaldi batzuetarako online-sarrerak –*Gurezirkua.eus*– agortu egin dira, baina txarteldegian 50 edo 60 inguru txartel beti izango dira. Orain dela bi urte erabaki hori hartu genuen eta hala segitzen dugu.

Txarteldegiaren ondoan izango da palomitak erosteko postua?

Bai, palomitak eta ura, besterik ez. Ez dugu *merchandising*-ik.

Aretxabaletako lanak egin ondoren, zer asmo duzue?

Usurbilera goaz, handik ere aspalditik deika ari dira, eta modu polita da aurtengo bira bukatzeko. Udaberrian abentura gehiago izango ditugu, esaterako, Nafarroa Beherera heldu nahi dugu.

Iker Galartza: "Pailazo izatea oso gauza serioa da"

ENTREVISTAS | ELKARRIZKETAK



Irailaren 22tik urriaren 7ra Agerraldiaren eskutik Gure Zirkuak bederatzi emanaldi emango ditu Tafallan

Euskal Herriko txoko ugaritan harrera zein kritika onak jaso dituen zirku euskalduna gurera dator azkenean. Barrakak ipintzen diren parkinean egongo da, "La Morenan" eta sarrerak www.gurezirkua.eus helbidean eskuratu daitezke.


Ikuskizunaren nondik norakoak jakiteko eta zirkuaren ibilbidea apur bat ezagutzeko **Iker Galartza zuzendariarekin mintzatu gara**, askori *Goenkale* edo *Vaya Semanita* bezalako telesailetan parte hartu izanagatik ezaguna egingo zaizuen.

Telebistan eta ikuskuzunaren munduan ibilbide oparoa izan duzu. Orain arte egindakoarekin erabat hautsi ez duzun arren, berotu eta zirku bat erosi zenuen, euskaraz egiteko asmoarekin. Zergatik?

Egia esan, ez dakit. 40 urteen krisialdia izango zen, auskalo. Egia da momento onean nenbilela, Antena 3eko **Allí abajo seriean soldata ona zen** eta agian Madrilen ordezkari bat hartu eta bertatik mugitzeko aukera nuen, baina 3 ume ditut hemen eta **ez nuen etxetik urrun ibiltzeko gogorik**.

Beti izan naiz zirkuaren maitalea eta batzuek Mercedes bat erosten duten moduan nik zirku karpa bat erosi nuen, kitto.

Alemanian, Italian... Leku guztietan zirkuak daude eta ez dugu zertan gutxiago izan behar. Agian hasieran arraroa suertatzen da zirku batean benvenuti edo good afternoon entzun ordez «arratsalde on» entzutea, baina hori polita da ere bai.



Beroaldia izan zen, baina beti hankak lurrean eukiz. Humiltasunez, jakinda esperientzia gutxikoak ginela baina bihotz eta arima guztia bertan ipiniko genituela.

Zer aurkituko dugu Gure Zirkuan?

Topiko bat dirudi, baina Gure Zirkuan sartzen zaren momentutik **mundu magiko batean aurkitzen zara**. Munduko zirku disziplina anitzak daude baina euskal artistek eginak. Disziplina tradizionalak dira baina gure ukituarekin.

Umore asko dago ere bai, ikusleak barre asko egingo du, baina **momentu hunkigarriak ere badaude**. Ordu eta erdiko ikuskizun jarraia da, zirkoaren arte eta magia gozatzeko aukera paregabea.

Bazegoen aurrekaririk ala lehenengo zirku euskalduna da?

Zirkuetan artista euskaldunak izan dira baina esango nuke espreski euskaraz diseinatutako zirkurik ez dela egon. Zirku disziplinak kalean egiten ibili gara asko baina horrela karpa batean egina ez dago aurrekaririk.

Artista batzuentzako Gure Zirkua etxera buelta moduko bat izan da. Ortzi Acosta, adibidez, Circo del Solen ibili da 12 urtez eta orain gurekin dago. Beste batzuk Edimburgon, Londresen...

Zentzu horretan zaila da euskararen kontestuan zirkurako lantalde bat aurkitzea?

Ez da erraza, batez ere maila ona eskaini nahi baduzu. Esango nuke **onentsuenak hemen gurekin ditugula**. Agian disziplina batzuetan badabil jende dezente, esaterako orain tela-aeroa egitea oso modan jarri da eta curriculum ugari heldu izan zaizkigu.

“Zirkua unibertsala da, ez da zertan euskaraz jakin behar trapezista batekin gozatzeko”

Baina Euskal Herrian kontortsionista on bat edo zazpi pilotarekin malabareak egingo dituen norbait aurkitzea zaila da. Gutxiagorekin askok egingo dituzte baina Europako 5 malabarista onenen artean dagoen bakarra dago, eta hori Ekain Ibareguren da, gurekin dagoena.

Nolakoa izan da orain arte ikuslegoaren harrera?

Oso ona, ikaragarria. Kontutan hartu behar da zirku bat dela eta nahiz eta **euskara ez jakin berdin disfrutatu daitekela, zirkua unibertsala baita**. Euskara asko hitz egiten ez den lekuetan egon gara eta jendeak primeran pasa du. Turistak ere etorri zaizkigu; alemanak, ingelesak, holandarrak... ikuskizunagatik zoriontzen.

Batzuek dudak dituzte, baina gero konturatzen dira malabaristak edo trapezistak ez duela hitz egiten, eta aurkezleak “arratsalde on” esaten duenean denok dakigula zer dioen. Pailazoak ere oso bisualak dira.

Duela gutxi Antsoainen, adibidez, bi astez egoteko asmoz joan ginen eta azkenean lau astez geratu ginen han. Sorpresa asko izan ditugu eta nik uste **Tafalla ez dela gutxiago izango**.

Zirkua egiteaz bizi daiteke? Hobeto esanda, euskaraz zirkua egiteaz bizi daiteke?

Gu saiatzen gara eta momentuz bizi gara. 8 hilabeteko birak egiten ditugu eta 4ko atsedenaldiak. Takillaz bizi gara, beraz, jendea datorren bitartean jarraitu ahal izango dugu. Batzuek pentsatuko dute zirkuan frikiak bakarrik dabilzala baina hemen seme-alabak dituen jende asko bizi da, 3 edo 4 umerekin.

Entzuna dut gainera zure familia zurekin bidaiatzen duela zirkuaren karabanan, ez?

Halaxe da bai, hementxe dabilta eta **ikuskitzunean ere parte hartzen dute**. Egun batean nitaz nazkatu eta ipurdian ostikoa emanaz pikutara bidaliko naute, baina momentuz hemen dira (jaja).

Gero bakoitzak bere amets eta ilusioak izango ditu, nik izan nituen bezala, eta hauek jarraitzeko libre izan behar dira handiak direnean.



Pailazo hitza despektiboki erabili ohi da batzuetan, baina txikitan behintzat gehienok adoratu izan ditugu pailazoak. Lan neketsua da? Ongi baloratua dago?

Askok uste dute oso erraz egiten dela, baina pailazo numero on bat egiteko asko entsaiatu behar da **ez baitago jendeak barre egingo duela uste eta ez lortzea baino gauza etsigarriagorik**. Imajinatu, txistea bota eta “kri-kri, kri-kri”...

Hori ez gertatzeko lan handia egin behar da, gag berriak sortu, hitz egiteko teknikak landu... Gainera mutikoekin aritzean marra oso fina da eta kontuz ibili behar da zer esan eta zer ez jakiteko. Helduentzat dibertigarri eta umeentzat barregarri izatearen arteko oreka bilatzea zaila da.

Teknologiak, paintailek eta sare sozialek umeen gustuak, jokoak edo dibertitzeko erak guztiz aldatu dituzte. Zentzu horretan umorea ere aldatu da?

Esango nuke ezetz. Guk egiten ditugun ikuskizun batzuk orain dela 100 urte egiten ziren eta nahiz eta gaur egun umeak teknologiaren munduan murgilduta egon, **zuzenekoak sekulako indarra du** eta barrez lehertzen dira.

Ez dago mobilak, tabletak edo play stationak kendu eta zurezko banku batean pailazoak ikustera ipintzea baino gauza hoberik. Gozada bat da umea beti ume delako. Gaur egun bideojokuekin aritzen dira aurrean jartzen zaizkielako, baina hauek gabe berdin dibertitu daitezke.

25 urte baino gehiago daramatzazu Poxpolo pailazoa interpretatzen. Zure Mr Hyde bezalako bat bihurtu da iada, zure beste aurpegi bat. Zer erakutsi dizu Poxpolok? Zer ikasi duzu berataz?

Poxpolok Iker Galartzari erakutsi dio Iker Galartza izan behar duela, hau da, ezin duela beti libre izan. Era berean, Poxpolok aukera eman dit egunerokotasunean esan ezin dudana sudur gorri bat ipiniz botatzeko.

Hala eta guztiz ere pailazoa barrenetik ateratzen zaidan zerbait da, ez da nirekin zer ikusirik ez daukan norbait, kontrakoa baizik.

NOAUA – 2023-10-31

Gure Zirkua atontze betean dira

Noaua Aldizkaria 2023ko urr. 31a



Karpa erraldoia egokitzen hasiak dira. Ostiralean eskainiko da estreinako emanaldia.

Usurbilen tokia hartzen hasi da Gure Zirkua. Astearte honetan ateratako argazkia duzue albiste honi atxikitakoa, Urbil pareko aparkalekuan. Hortxe kokatuko da Euskal Herriko ikuskizun ezagunena. Bertan agurtuko du bere seigarren bira arrakastatsua, ostiral honetan, azaroaren 3an hasi eta hilaren 18ra arte. Bitarte horretan hamabi emanaldi eskainiko dituzte. Ikuskizunoz gozatzeko sarrerak gurezirkua.eus atarian eskura ditzakezue. Azaroaren 5eko emanaldikoak jada agortu direla berri eman dute.

Egun eta orduotarako programatu dituzte ikuskizunok:

- Azaroak 3, ostirala: 19:00.
- Azaroak 4, larunbata: 16:30/19:00.
- Azaroak 5, igandea: 17:00 (sarrerak agortuak).
- Azaroak 10, ostirala: 19:00.

- Azaroak 11, larunbata: 16:30/19:00.
- Azaroak 12, igandea: 12:00/17:00.
- Azaroak 17, ostirala: 19:00.
- Azaroak 18, larunbata: 16:30/19:00.

Gure Zirkua

Harrera jendetsua izan ohi du, Gure Zirkuak bisitatu dituen Euskal Herriko txokoetan. "Nortasun berezi, xeble eta irribarretsua duten artistez osatutako konpainiak ezinezkoarekin jolas egin asmo du, eta beren ametsetako ikuskizuna eskaini. Beren arte eskuzabal eta herrikoa erakutsi nahi digute. Beren lanbidea, edertasuna eta ausardia elkarbanatu nahi dute herri osoarekin, adin eta maila guztietarako herritarrekin", hala aurkeztu digute Gure Zirkua bere sustatzaileek.

Iragarria dutenez, "Gure Zirkuan sinetsi ezin dena gozatuko dugu; eta karpa barruko giroa osatuko duten orekarekin, indarrarekin, arriskuarekin, trebetasunarekin eta pozarekin harrituko gara".

Sarrerak eta informazio gehiago, gurezirkua.eus atarian.

Gure Zirkua, barrutik: Argiak itzaltzen direnean

Publikatuta: 2023/12/06

IKER GOMEZ DE LA PEÑA | EITB MEDIA

Lau ataleko dokumentala egin du EITBk Gure Zirkua-ren barruak erakusteko. Bi hilabetez, elkarbizitzan aritu dira zirkuko artistak eta Euskal Telebistako langileak. Dokumentalaren aurreneko atala Durangoko Azokan izan da ikusgai, eta telebistan urtarilaren hasieran estreinatuko da.

<https://www.eitb.eus/eu/kultura/durangoko-azoka/bideoak/oso/9371305/bideoa-gure-zirkuari-buruzko-dokumentala-egin-du-eitbk/>

Zirkuaren magiak telebistara egingo du jauzi "Gure Zirkua" saio berriaren bitartez

EITB MEDIA

Publikatuta: 2023/12/07

Duela sei urte Iker Galartzak sorturiko Euskal Herriko lehen zirku ibiltariaren egunerokoa erakutsiko digu, Sua Enparantza aktore eta dantzariaren esperientziaren bitartez. Urtarrilean estreinatuko da ETB1en eta Durangoko Azokan izan da aurrestreinaldia.



• "Gure Zirkua"ren aurkezpeneko irudia

Gure Zirkuak, Iker Galartzak sortutako Euskal Herriko lehen zirku ibiltariak, sei urte daramatza Euskal Herriko herri eta txokoetan magia, poza eta ilusioa zabaltzen. Orain, euskaraz sortutako ikuskizun mundialak telebistara egingo du jauzi EITBren eskutik. "Gure Zirkua" telebista saioak zirkuko karparen atzean bizi duten egunerokoa erakutsiko digu Sua Enparantza aktore eta dantzariaren esperientziaren bitartez.

Urtarrilean ETB1era iritsiko den programaren aurrestreinaldia Durangoko Azokako Irudienean egin du EITBk asteazkenean (abenduak 6). Bertan izan dira Gorka Garcia ETBko Programa eta Arte zuzendaria, Irati Sarasua "Gure Zirkua" saioko zuzendaria, Ekain Iburguren malabarista, pailazo eta zirkuko kidea, eta Sua Enparantza, besteak beste.

Sei urteren ondoren, 57 herritan egon da Gure Zirkuko karpa jarrita, eta 210.000 lagunuen aurrean aritu dira bertako artistak. Bada, ETBko saioan, euren karabanetako ateak zabalduko dituzte, eta lanbide bat baino, bizitzeko modu bat dela erakutsiko digute.

Zirku ibiltari baten errealitatea nolakoa den ikusiko dugu, baita bertako kideen arteko harremana ere. Eurekin egindako elkarrizketen bidez, gertuagotik ezagutuko ditugu eta haiek egiten duten jardueraren balioa handituko da. Nola ez, zirkuko karpa barruan egiteko duten ikuskizunak aho zabalik utzi du ikuslea, eta hori telebistan ere antzemango da.

Kontakizun honen giltzarria Sua Enparantza izango da, "Irabazi Arte" telesaileko protagonista eta Kukai dantza taldeko kidea. Zirkuan kide berri baten bila ari dira, eta Suak zein abilezia dituen erakutsi beharko du.

Gure Zirkuak telebistara egingo du jauzi

Urtarrilean iritsiko da saioa EITB1era eta zirkuaren karparen atzean artistek bizi duten egunerokoa erakutsiko du

DV

Donostia

Viernes, 8 de diciembre 2023

Gure Zirkua Euskal Herriko lehen zirku ibiltaria da, Iker Galartzak sortutako eta sei urte daramatzana Euskal Herriko herri eta txokoetan magia, poza eta ilusioa zabaltzen. Denbora guzti honetan 57 herritan egon da Gure Zirkuko karpa jarrita, eta 210.000 lagunengatik aurrean aritu dira bertako artistak.

Orain, euskaraz sortutako ikuskizun honek telebistara egingo du jauzi EITBren eskutik. 'Gure Zirkua' telebista saioak zirkuko karparen atzean bizi duten egunerokoa erakutsiko du Sua Enparantza aktore eta dantzariaren esperientziaren bitartez. Urtarrilean iritsiko da programa ETB1era, baina aste honetan aurrestreinaldia egin da Durangoko Azkokako Irudienean. Bertan izan ziren Gorka Garcia ETBko Programa eta Arte zuzendaria, Irati Sarasua 'Gure Zirkua' saioko zuzendaria eta Ekain Ibareguren malabarista, pailazo eta zirkuko kidea, besteak beste.

PUBLICIDAD

Saioan, artistek euren karabanetako ateak zabalduko dituzte, eta lanbide bat baino, bizitzeko modu bat dela erakutsiko dute. Zirku ibiltari baten errealitatea nolakoa den ikusteko aukera izango du ikusleak, baita bertako kideen arteko harremana ere. Eurekin egindako elkarrizketen bidez, gertuagotik ezagutu eta haiek egiten duten jardueraren balioa azalduko da.

Kontakizun honen giltzarria Sua Enparantza izango da,'Irabazi Arte' telesaileko protagonista eta Kukai dantza taldeko kidea. Zirkuan kide berri baten bila ari dira, eta Suak zein abilezia dituen erakutsi beharko du.

Telebistako saio ikusi aurretik, Gure Zirkua zuzenean gozatzeko aukera bagado oraindik, izan ere, abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra Tolosako San Agustin auzoan 10 emanaldi eskainiko ditu Euskal Herriko zirku ibiltariak.

ARROSA SAREA – 2023-12-19

Iker Galartza · GURE ZIRKUA

Arrosa 2023/12/19

Gure Zirkua Euskal Herriko txokotan dabil aspaldi, eta neguko oporretarako proposatzen dituzten zirku ikastaroak aitzakitzat hartu eta Iker Galartza izan dugu gurean gaur.

<https://www.arrosasarea.eus/2023/12/19/iker-galartza-%c2%b7-gure-zirkua/>

TOLOSALDEKO ATARIA – 2023-12-21

Azken sarrerak geratzen dira



[Harituz - Tolosaldeko Bertsozale Elkargunea](#) 2023ko abe. 21a



Abenduaren 23ko Gure Bertso Zirkua saiorako azken sarrerak geratzen dira.

Gure Bertso Zirkua abenduaren 23an izango da, 19:00etan, Tolosako San Esteban dagoen Gure Zirkua zirkugunean. Unai Mendizabal zizurkildarra, Oihana Bartra, Andoni Egaña eta Alaia Martin bertsolariekin batera Gure Zirkuko artistak izango dira bertan; eta gai-jartzaile lanetan berriz, Iker Iriarte alegiarra eta Imanol Artola amezketarra arituko dira.

Sarrerak salgai daude, 15 euroan eta ondorengo lekuetan:

- Ixkiña taberna (Alegia).
- Galtzaundi Euskara Taldea (Tolosa).
- Iru-aldeta taberna (Villabona).
- Online: Gurezirkua.eus

BERRIA – 2023-12-27

Gure Zirkua barrutik erakutsiko du ETBk

ETBk 'Gure Zirkua' estreinatuko du urtarrilean; lau atal izango ditu. Sua Enparantza zirkuaren atzean dagoena deskubrituz joango da.



Gure Zirkuaren taldea, ETBren saioan. ETB



[Urtzi Urkizu](#)

TOLOSA

2023KO ABENDUAREN 27A

Zuhaitz Gurrutxaga Gure Zirkuko karpatik irten da, Iker Galartzarekin antzezlan baterako entseatzen ari baita. Joseba Usabiaga batera eta bestera dabil. Zirkukoak emanaldi berezietarako sarrerak nola doazen aipatzen ari dira. Esperientzia ahaztezina da Gure Zirkuaren ikuskizun bat bertatik bertara ikustea. ETB1ek, berriz, Gure Zirkuaren atzean dagoena erakutsiko du: urtarrilean

estreinatuko dute lau ataleko programa. Sua Enparantza aktore eta dantzaria joango da saiora zirkua nolakoa den ikustera, eta haren begietatik iritsiko da magia hori etxeko ikus-entzuleengana.

Orio Produkzioak ekoiztetxeak egin du *Gure Zirkua* saioa. Irati Sarasua da zuzendaria. Gidoilari lanetan, berriz, Aitzol Barandiaran aritu da, eta zuzendariordea Luis Oiartzabal da —*Herri txiki, infernu handi* programako zuzendaria—.



ETB1eko 'Gure Zirkua' saioa. ETB

Iker Galartza Gure Zirkuaren sortzaile eta arduradunak kontatu duenez, ETBren ideia izan zen programa bat egitea. «Duela bi urte telebistatik esan ziguten polita izango zela erreportaje bat egitea Gure Zirkuaren inguruan. Guk ETBri esan genion nahiago genuela gauzak egonkortu arte nahiago itxaron. Ez genuen nobedade bat izan nahi, besterik gabe». Aurten, berriro joan zitzaizkien ETBkoak eskaera berarekin. «Taldea egonkortuta dago orain, eta aurrera egin genuen.

Pentsatu genuen zirkuaren atzealdea ezagutarazteko modu bat izan zitekeela saioa». Jendearen galderei erantzuteko modua izan daiteke programa, Galartzaren aburuz. «Eta oso eskertuta nago, gauzak erraztu egin dizkigute eta».

ETB Orio Produkzioak ekoiztetxearekin jarri zen harremanetan saioa egiteko. Irati Sarasua saioko zuzendaria maiatzean hasi zen Gure Zirkuko artistengana hurbiltzen. «Inbaditu gabe, haien egunerokoa ezagutuz joan ginen». Gero, abuztuan joan ziren kamerekin grabatzera. Lehen atala Orion (Gipuzkoa) girotuta dago —Gure Zirkuk han ematen du abuztua—; bigarrenak desmuntatzeko lana nola egiten duten erakutsiko du, eta nola joan ziren handik Arbizura (Nafarroa); hirugarrena Arbizun bertan dago girotua; eta laugarrena eta azkena, Tafallan (Nafarroa). «Gure Zirkuaren atzealdea ikusten da, eta Sua Enparantzaren ibilbidea. Saio bakoitzean zirkuko bi edo hiru protagonista daude. Eta protagonisten emanaldia ere ikusten da», iragarri du Sarasuak.



Sua Enparantza, 'Gure Zirkua' ETBko saioan. ETB

Programako zuzendariak aipatu duenez, Enparantzarenak izango dira zirkuaren begi berriak. «Lehen aldian zirkura joan eta harritzen gintuen hori haren begietan ikusiko du ikus-entzuleak». Galartzak hori bera azpimarratu du: «Publikoaren begiak izango dira Suarenak. Askotan telebistan gauzak presaka egiten dira, baina, kasu honetan, ondo egin dira». Batekin eta bestearekin hitz

eginez joan dira, eta gero planteatu dute gauzak nola egin. «Kamera bati gauzak azaldu beharrean, errazagoa izan da hori Enparantzari kontatzea». Aktorea, gainera, zirkuko beste artista batzuek egiten dituzten diziplinetan saiakerak egiten jarri dute. Sarasuak nabarmendu du, adibidez, Ekain Ibarguren hainbat pilotarekin malabarak egiten ikustean nabari dela horren atzean «sekulako lana» dagoela. «Diziplina guztientzat behar dena azalduko da saioan».

Primeran-en ere ikusiko da

Programako zuzendariak adierazi du lantaldeak «ilusio handia» jarri duela proiektuan. «Astean astekoa egitera ohituta gaude, baina lantaldean asko eman dugu guretik, eta azken emaitzan nabarituko da hori».

Galartza gustura dago telebista saioa egiteko ekoiztetxeak erabili duen prozedurarekin. «Kamerak etorri dira, eguna eta gaua pasatu dute gurekin, gurekin bazkaldu dute... Horrek gerturatu egin gaitu, harremana estutu egin da. Eta garrantzitsua izan da hori». Oholtzara ateratzen ez diren zirkuko beste langileak ere agertuko dira saioan, eta haien lana nabarmendu dute Galartzak eta Sarasuak.

ETBko emanaldiaren ostean, Primeran plataforman edozein unetan ikusi ahalko dira programako atalak. Galartzaren arabera, jendeak saioan ikusiko du badaudela beste ogibide batzuk, eta zirkua hor dagoela. «Gure jendea ere badela ikusiko dute, eta denetik dagoela». Esaterako, Osakidetzako lana utzi duen erizain bat dute taldean, trapezista: Lander Briones.



ETB1 kateko 'Gure Zirkua' saioa. ETB

Galarzak eskerrak eman dizkie Orio ekoiztetxeari eta ETBri, lan egiteko moduagatik. «Garen modukoak izaten utzi digute, eta horrela azalduko gara pantailan. Dena oso egiazkoa eta naturala da saioan. Interesa piztu dezake, eta gaztetxoei erakutsiko diegu badaudela beste gauza batzuk».

Sei urtean, Gure Zirkua Euskal Herriko 57 herritan ibili da ikuskizunak egiten. 210.000 ikusle baino gehiago izan dituzte. ETBko saioak erakutsiko du lanbide bat baino gehiago dela zirkuarena: bizitzeko modu bat. Igande gauean emango du saioa ETB1ek.